



2051

UTOPIA IRAGAN

Ekaitz Goienetxea Cereceda

bestehitzak
|||||

Co-funded by the
Creative Europe Programme
of the European Union



otherwords
|||||

Irudiaren egilea: Jaione Ortiz de Zarate Elorriaga
Azalaren diseinua: Ekaitz Goienetxea Cereceda

2051

bestehitzak

|||||Hiztopiak

Ekaitz Goienetxea Cereceda

Haize hodeiak dabilta ostarreetekin des eta ber agertzen. Hego boladek putz eginda buztan kiribilak ari dira marrazten goi lainoetan. Eki borobila gori ostertzetik gora, margoak dakartza gamarik gama. Hedatzen doaz egunsenti koloreak zeru oihalean handi. Ubela gorri. Laranja bizi. Horia urdin zabala. Akuarela printzen antzera eraldatzen, distirak bobedan dantza askean. Isladak eta itzalak ariñeketan itsasoaren azal metalikoan.

Eguzkiak urtzen du goian gailurretako elurra.
Uharkara jausten ibarrera geldigaitza den oldarra.

Paisajearen zabalean urrunetik tanta beltz bat ziztu osoan. Marra bat trazatu eta traza marraren ostean disolbatu da. Lur gaina ukitu gabe hegaz. Sasi guztien gainetik. Laino guztien azpitik. Laban suge gorrien antzera. Lautadako belardian aire olatu bat haren atzetik. Alde egin du urrunera. Zeharkatu du zeru ertza.

Zeru ertzean utopia dago. Horrela dio esaera zaharrak. Pausu bat hurreratu eta zeru ertza beste horrenbeste urruntzen dela. Sekula inor ezingo dela haraino ailegatu. Zenbat eta gehiago tematu haren bila, orduan eta ezinezkoagoa dela zeru ertzera iristea. Zertarako balio du utopiak orduan? Horretarako balio du, dio esaera zaharrak. Ibiltzeko.

2051 trenak zeru ertza zeharkatu du, eta utopia iragan.

Finisterre. Mesopotamia. Khunjerab. Mendebaldetik ekialdera. Hegoaldetik iparraldera. Kontinente geografiko osoa. Susa. Etiopia. Obaba. Ahozko tradizioan mantendu diren lur eremu izenak, jada mapetan idazten ez direnak. Karakorum. Samarkanda. Xian. Distantziak eta mugak ezabatu egin dira. Mundua beste inoiz baino eskurago du zibilizazioak, mugimenduaren mendean.

Ubide baten antzeko ildaskan zehar dabil 2051 trena, ez burdinezko errailen gainean, antzinako trenen antzera. Baizik eta hari baten gainean bezala, ertzik gabeko haize orratz aerodinamiko bat legez. Lebitazio magnetikoz. Oztopo barik. Narriadurarik gabe. Lurazalean errei moduko lerro fin bat markatzen du pasatzen denean, atzetik heltzen den haizeak sedimentu naturalez bete eta desagerrarazten duen bidea. 2051 trenak uzten duen lorratzean landaredia biodibertsoa hazten da.

Hidrogenoa du propulsiogai 2051 trenak. Plastikotan aberats dira. Itsas materiale sintetikoak bi etapa kimikotan prozesatuta lortzen da hidrogenoa. Garbia da mugimendua. Ozonoaren eta ozeanoen lagun. Atlantikoa. Artikoa. Barea. Lehen etapan, pirolisiz degradatzen dira plastikoak termikoki oxigeno barik utzi arte, erreaktore konikoetan eta bero masa handietan.

Eratortitako gasak erabiltzen dira bigarren etapan, lurrun bidezko erreformatze katalitikoan. 1.201 kilometro garbi orduko. Karbono dioxido emisiorik ez. Troposfera. Estratosfera. Atmosfera garbi. Ozeanoak distiratsu.

Hodei zirrokumuluak lasterka. Zeruan zimur borobilak. Gero eta beteago multzo bertikaletan. Euriaren etorreraren iragarle. Eguzki izpiak zirrikituetatik zeharka, han hor hemen, geriz ibiltariekin dantza lotuan. Dena da mugimendu txiki eta azkar ikusmira panoramikoan. Altzairuzko haize errotek putz. Glaziarretako ur putzu hondeamakinek kilima. Zuhaitz arnas gailuen adarrek dardar. Ibai fotovoltaikoen isladek laban. Trenaren marra likidoa paisaiari betazala marrazten.

Lainoak gero eta lodiago eta ilunago zero sabaian.
Zaparrada bota behar du laster.

Mantsotu egin du abiada 2051 trenak erabat geratu arte lautadaren erdian. Abian da trasformazio prozesua. Luzetara bidaiatzen duten bagoiak itxuraldatzen, 6x6 moduluak besorik beso bata bestearen gainean pausatuz, karaban etzanak bertikalean forma berriak hartzen, eraldaketa oro moldaeraz. Zutabeak. Dorreak. Etxeorratzak. Altzairuzko metamorfosi elastikoa, eboluzio legeen bidez hainbat animalik garatu mekanismoen antzera. Beldarra tximeleta bihurtzen den eran. Zapaburua igel. Gregorio Samsa kakalardo. Trena estazio. Garraiobidea hirigune da orain, atsedean hartzen duten bi zutabe erraldoitan.

Pausa.

Tximista batek erdibitu du zerua. Zast.

Babestuta daude bidaiariak hiri estazio erraldoian. Moduluen konektore intermodalek kanpaleku ziutadela bat konposatu dute eta funtzio guztiak jasotzen ditu hiriak bere baitan. Merkatua. Ostaturia. Aisia. Oxigeno zigarroak erretzera azaldu dira goiko solairuetako balkoietara, saldoka. Familia kideak agurtzeko probestu dute tartea familia dutenek. Tokiko janarien azoka eta jantokiak atondu dituzte beherengoko solairuetan. Sexu harreman efimeroetara ezkutatu dira gose direnak, logetara. Baltzokietan eta komunetan ilara luzeak, dorre, solairu eta pasillo guztietan. Zorri txiki pila dirudite biztanleek hiriaren tamainaren aldean.

Lainoen beltzaren itzala astun.
Arrakalatutako zero puskek gainera erortzear.

Estazioa ez da toki bat. Estazioa momentu bat da, instantea, aldiunea. Gizarte bidaiari oso baten geldialdia. Konturatzeko amaitu eta berriro bere martxa abiatuko duen atsedendaldirik iragankorra. Antzinako zibilizazio erlijiodunetan igande deitzen zuten egunaren antzeko zerbait. Estazioko dorre erraldoiek nagiak aterako dituzte eta beren burua deseraikitzen hasiko dira. Etxeorratzak. Zutabeak. Oinarriak. Dena bere baitan jaso eta, besorik beso, atzera prestatu dira moduluak etzanean, bagoiak luzetara erreskan. Hego ekialderantz abiatu da orain 2051 tren anfibioa, haizea bezain arin.

Lehen tanta lodiak orduan jausi dira. Zarrasta belua lainopean. Trumoi bat entzun da mendi tontorrean, berandu. Katakak eta burrunba. Euri jasaren zalaparta ez du inork entzun.

Distantzia geografikoak deuseztuta. Kontinente osoa bertan. Begi kliskada batean. Garai bateko obsolezentzia teknologikoak desagerrarazita. Hiri ibiltari bat ez duena behar maparik. Mugimendua du ipar eta bide bakar.

Sekula zahartzen ez den arkitektura nomada bat, galbiderik ez duen urbanismo aktualizalea, bere burua berritzen duena. Behin eta berriz. Behin eta berriro. Behin eta betiko. Iraunkortasun mugagabea.

Infinituraino jasagarri.

2051 trenean dena da arin, 1.201 kilometro garbi orduko. Leihoak interfaze informatibo garden interaktiboak dira: kanpoko eguraldiaren kolorea aukeratzeko, bizikidetzara arau oinarritutako deskargatzeko, hurrengo estazioaren logoa bozkatzeko. Muskerra. Arranoa. Zaldia. Logo batek mila hizkuntzak baino azkarrago komunikatzen baitu.

2051 trenean dena da online, 7.111 hizkuntza kanal aukeran. Bidaiariaren beharrian eta apeta pertsonaletara daude kustomizagarri eta moldagarri zerbitzu guztiak. Belarrira errezitatutako dizkizur bikoiztuta konputadore ahotsak. Sintonizatu gogoko hizkuntza belarrietako gailuan.

2051 trenean dena dago hemen, eserlekutik mugitu beharrik izan gabe. Bideokonferentziak, zuzeneko kontzertuak, oporlekuak streaming bidez, aurrez aurreko monitore nagusian. Atsegin guneak. Bizi jokoak. Goza lagunak. Appatx. Plazapp. Appa-Hi. Egin flirt harreman intimoenetarako aldibereko bideo-leiho multipleetan zehar.

2051 trenean dena da orain, instante honetan bertan. Adimendu bidai-txartelak eskura dakar informazio osoa. Denbora erreala areagotzeko aplikazioak. Datu salerosketen joera berriak. Etorkizun iragarleen hurrengo titular nagusiak. "Desazkundeen urteurrena laster". Biztanleria osoa dago interkonektatuta, noranzko berean, eskutik helduta.

Bai. Baita zera ere.

2051 trenean beti da epel. Konboiaren gainazala euri eta eguzki hartzaileek osatzen dute, energia beharrianetarako. Kanpoan tenperatura eta klima aldaketak gertatzen direnean, barruan aire girotu-orekatua mantentzen da, karabanen sabelaldean txertatutako imantazio geotermikoari esker.

2051 trenean beti da bake. Hiri guztiak daramatza bere baitan. Desmuntatu berri dituenak eta etorkizun diren hurrengoak. Biztanleria bidaiaria anitza da. Olokrazia sistema birtualak ahaldunduz du norbanako bakoitza jendetzaren berezitasun oro errespetatuz. Otsoa. Balea. Pinguinoa. Lagundu aukeratzen hurrengo estazioaren logoa. Iritzi guztiak dira ezinbesteko. Ados, kliskatu begiak behin. Desados, ez kliskatu begiak behin ere. Gogoratu zure hizkuntza kanal gogokoena esleitzea Bozkappa zabaldu aurretik.

2051 trenean beti da anitz. Eurasia zahar osoko jatorriak, kulturak, hizkuntzak, sexuak eta adinak. Guztiak bat, bidaiak berbera konpartitzen.

Bizikidetza sintonia iraunkorra doa bat eginda bagoietan, teknologia pertsonalizagarriari esker, karabanetako dibertsitate sozial aberatsean.

Gero eta propaganda pildora luzeagoak irentsi behar dira, hiru txanpon eskuratzearen, oi ai teknologia banda zabal eta mahuka estua.

2051 trenean guztion esku dago askatasuna. Hiritarrak oinarrizko hiru bizikidetza arau bakarrik oroitu behar ditu. Bat, erlijio ikurrik ez. Bi, bandera abertzalerik ez. Hiru, negar erakustaldirik ez. Eremu intimoko praktika libreak dira folklore, sinesmen eta tristezia tradizioak eta zaletasunak. Horregatik, gela beltzak daude egokituta ohitura pertsonalen kontsumo pribatuetarako: Baltzokiak, toki baltz folklorikoak. Mendekotasun arriskuak gutxitzearen, gela beltzen erabilera neurritsua gomendatzen da.

Gogoratu. Erlijiorik ez. Banderarik ez. Depresiorik ez. Folklore adierazpenak publikoki erakustea debekatuta dago, aniztasunarekiko errespetuan.

2051 trenean guztion esku dago errespetua. Norbaitek bizikidetza arau oinarrizkoak hausten dituela ikusiz gero, sakatu lauki beltza; monitore nagusiko goiko ertzean dago. Era berean, leihoetako interfazean dago araudiaren bertsio aktualizatua kontsultagai, zazpi mila eta hamaika hizkuntzatan. Zalantzarik edukiz gero, altxa besoa eta gertuen dabilkizun azafata funtzionariak adeitsuki erakutsiko dizun zein den sakatu beharreko botoia.

Azafatalari uniformedunak hara eta hona dabilta, leihoetako interfazeak seinalatuz, irribarre sosteniblean. Gutxik begiratzen dute leihora; are gutxiagok leihotik.

2051 trenean guztion esku dago ahotsa. Norbere hizkuntza entzuteko, nahikoa da belarrietako gailuetan kanal egokia sintonizatzea. Nahi dena adierazteko, aski da ahots mezu bat grabatzea eta borobil berdea sakatzea, tren-hiriko biztanleria osoaren esku egongo da berehala. Beteta dago gaur Plazapp.

Aurpegien mosaikoa infinituraino hedagarria da pantailan. Bagoi guztietako moduluetako eserleku bakoitzean eserita doanaren aurpegiak aldi berean eta alda batera zelatatu ahal dira monitoreko mostra zabalean.

Disko jartzaile baten saioa itsu gozaten ari den morroskoa kaskoei eskuekin oratuta, subgrabeak kolpeka. Alergiak jotako sudurgorria doministikuka pantaila ziprizzintzen. Bizi jokoen adikto bat argi eztaudekin hipnotizatua eta amorru bekoki ilunez hurrengo pantaila zeharkatu nahian. Yogurt poto hutsari azken hondarrak ebasten tematuta dabil beste bat tiklinki klanka koilararekin bueltaka. Zurrunga betean ametsen mundura murgil eginda dagoen loti inondik ere ez ederrari lerdea dario lepoko puzgarriaren gainera. Bibolinjole bat, hasiberria, eskalak praktikatzen. Zeta oihal saltzaile bat, kolore guztietako estiloak erakusten, frustrazio aurpegikeraz, orain zetazko oihalak utzi eta bere belarrietako gailuak eskaintzen pantailara. Karaoke zale bat ez dena ohartzen ez dela ari ahotsarekin asmatzen pasioz ahalegindu arren hain du-eta bere kaskoetako bolumena ozen. Ume bat, azala ubel, negarrez. Kazetariak karta-saioetan etorkizuneko titular pertsonalak iragartzen. Denbora artekariak artega aldarrika. Soslai birtualen zirujauak eskaintza berezien berri emanez. Katu antza duen soineko gorriduna altan marroaka. Oilar gangordun bat kukurrukuka desordutan.

Ardi maskara anonimoek bee artzain galduren bati. Bele gorbatadunak ipurbeltz bere buruari. Jendetza aseegin bat fauna artifizial bihurtua, bestela animaliarik bizi ez den trenean, estazioen logoak bozkatzeko irudietan ez bada. Untxi zuria. Panda hartza. Eskutitz bat. Astirik ez amodio kantak eskaintzeko. Disko jartzailea jo eta su, subgrabe kolpeen gainetik egiten ari den skratx amaitezina inor aditzen ari ote den bost axola zaiona, kaskoei eskuekin oratuta itsu gozitzen ari den morroskoaren berri izan gabe. Eta bata bestearen ondoan doaz eserita.

2051 trenak bidaia atsegina izan dezazula opa dizu.

Tren honetan bizi naiz ni. Hemen noa, trenaren altzairuzko 2051 bagoietako hemeretzi-garren karabanaren 6x6 moduluetakoa hirugarrenaren C2 jarlekuan, leihoaren aldekoan. Amaitu da monitoreko publie-reportajea. Kobratu ditut dagozkion hiru txanpon elektronikoz ziztrinak. Musikaren bildumategira sartu naiz, konputadore ahotsaren matrakaren osteko deskantsu apur baten bila entzumenarentzat. Lasaia; akustikoa; instrumentala: bit.do/2051 Borobil berdeari eman diot, txanpon elektronikoa kobratu di erreproduzioak.

Inko Soare naiz, itzulpengintzan titulatu online.
Langabetua, 2051 treneko biztanleriaren gehiengoa legez.

Aukera gehiago daudela. Promesa horrekin igo gara trenera. Ogibide berriak, hizkuntza berriak, kultura berriak. Langabezia tasa %61etik gorakoa da 2051 trenean. Elikagaietarako, higienetarako eta aisirako sosa propaganda saio ofizialen bidez eskuratzen ditugu gehienok. Hiru txanpon ikustaldiko. Utopiari buruzko iragarkia buruz dakit.

Kapritxoren bat gura duenak, tokian tokiko ardo likoreak, oxigeno zigarro paketeak, zaletasun folklorikoak asetzeko Baltzoki saio bat... Propaganda ikustaldi gehiago behar ditu edo gutxiengo pribilegiatu batek baino lortzen ez duen lana eskuratu. Lanbide berriak, deitzen diete. Data biltzaileak. Energia ingeniariak. Soslai zirujauak. Farmazia dealerrak. Azafata irribarre sostenibileak. Tokian tokiko merkantzia truketik salgaiak behin eta berriro eskualdatzen baina sekula ezer saltzera iristen ez diren oihulariak. Zeta. Larrua. Kotoia. Meloiak. Alberjiniak. Espezia lurrintsuak. Bai, denetarik aurki dezake 2051 trenera igo den biztanleak. Zapatak lurrean. Galtzerdiak zintzilik. Maletak hutsik. Azukrea. Gatza. Piperrik ez.

Oso gutxirekin bizi naiz ni, estazioz estazio. Sabela bete, besapeak garbitu eta oxigeno apur bat. Besterik ez dut behar nik bizitzeko. Tira, eta sexu apur bat ere bai tarteka, zertan ezkutatu. Bete ere ez, estazio birik behin-edo. Gorputzaren behar fisikoak asetzearren. 2051 trenean bete baita epel, baina hotza da bakardadea eta garestiak Baltzoki saioak.

Oso logoaren estazioan beltzaran apasionatu batekin partekatu dut logela alokairua. Bina txanpon elektronikoa gau osoa. Balearen estazioan kaskamotz begi-polit batekin elkartu naiz. Ez da behar hitzik enkontru erotikoa adosteko. Begiekin klisk egin eta barrura. Batzuetan gau osoa ere ez du irauten, orgasmoa arin erdietsi eta aio. Pinguino estazioan ilehori batekin izan da. Alokairua erdi prezioan atera zaigu. Arropak jantzi, alokairua eskuko txartelarekin ordaindu eta bakoitzak bere bidea jarraitu, nork bere oxigeno zigarroa biztuta, azkena, nire kasuan.

Oharra: oxigeno pakete berria erosi behar dut hurrengo estazioan.

Izenik ez. Hitz erdirik ez. Hurrengo estaziora arterik ere ez. Hobeto horrela, larrua jo eta gero barbarik egiten ez duten bi pertsonak bata bestearen begietara biluztu eta gorputzaren kode zeinu guztiak agerian utzi eta gero, hizkuntza berbera hitz egin ezean ez da misterio gehiagorik geratzen beste ezer deskubritzeko.

Pinguinoa desmuntatu eta trenak bere martxa berratu duenetik ondoan eserita dudan gizonkotea ez da isildu; bere aurreko pantailari berbetan ari da, zerbait orientala, hegoekialdeko kostaldeko dialektoren bat-edo, ez zaio ulertzen tutik ere, baina bere ahots tonuaren zorrotzak nire belarrietako gailuak zulatzen ditu musika instrumentalaren gainetik eta tentsioan gogortzen ari zait gorputza haren doinukera desafinatua jasatearen pazientzia erreserbei ezin gehiago eutsita. Baina ez naiz ausartuko ezer esatera. Tonua txilibitu bat bezain zorrotza izan arren gorputza eta aurpegikera grabeak baititu gizonkoteak, eta, gainera, bidaiari bati, edonor dela ere, kaskoak kentzeko eskatzea eta elkarrizketa saiakera txikiren bat egitea estrainioegia bezain edukazio txarrekoa da 2051 trenean.

Musika istrumentalean kontzentratu gura dut.

Kaskoak estutu ditut eskuekin belarrien kontra, entzumena erabat isolatu nahian. Gizonkoteak pantaila aurrean hiru leiho dauzka aldi berean irekita, hiru aurpegi monitorizatu, beraiek ere hirurak aldi berean hizketan ari dira, edo keinuak egiten bai bederen. Batek besoak mugitzen ditu gora eta behera, enkoadretik kanpo dagoen zerbait seinalatu nahian-edo, kolpeka bezala, zakur aurpegia gorri eta rotwailler antza, zaunka irudikatzen dut. Besteak irribarreño maltzur poseak egiten ditu, kamarari zeharka begiratuta, esaten ari dena bere kamisetaren lepoari xuxurlatzen ariko balitz bezala. Hirugarrena enkoadretik atera eta sartu dabil, susto imintzioak eginez, barrezka lehertu aurretik. Ondoan eserita dudan gizonkotea ez dakit hiruretako norekin ari den berbetan, hiruretako inor entzuten ari ote den, baina ez da behin ere isiltzen, ezta arnasa hartzeko ere. Eta besape kiratsa dario.

Musika eten egin zait kaskoetan. Monitore guztiak itzali dituzte. Nire aurpegiaren islada ikus dezaket orain pantaila belztuan. Abaildu aurpegia dut, betzulo eroriak, ilea koipetsu eta bizarra desordenatua. Hurrengo estazioan bizarra egiteko astia hartu beharko nuke. Oxigeno paketea erosi eta gero.

Informazio tarteen kanpai kolpeak belarrietako gailuetan. *“Desazkundearen urteurrena da. Gorde diezaigun isiltasun tarte bat memoriari”*. Isiltasun ikonoa pantailan, atzamar bat ezpainen aurrean. Kaskoak eranztean konturatu naiz lehengo gizonkotea aldamenetik altxatu eta joan egin dela.

Isiltasuna da nagusi bagoian. Sare nagusitik itzali dituzte bagoiko gailu elektronikoak. Trenaren mugimenduaren inertziaren ziztua baino ez da aditzen, fin.

Leihoan hiri mamu bat agertzen da astiro eskumatik, lautada zabalaren urrunean. Abandonuaren beltza dute eraikinek.

Leihoetara so dago bidaileria osoa. Denok dakigu trenaren 2051 bagoietan isilik goazela denok. Den-den-denok gaude mutu. Aire giro surrealista bat arnastearen antzeko zeozer sumatzen da azalean. Zakurrak, ardiak, beleak, oilarrak, fauna osoa arnasa etenda. Umerik ere ez negarrez, ezta zotirik ere. Isiltasun tarte iraganari eta memoriari begirunez, Eraikuntza Lasterketaren Gerra Hotzik ez dadin gertatu sekula berriz. 75 urte dagoeneko, hirurogeita hamabost segundu. Segundu bete, urte bakoitzeko. Bat. Bi. Hirurogeita hamabost.

Desagertu da hiri mamua leihoaren ezkerretik.
Abandonuaren beltza ere bai, eraikinekin batera.

Biztu dira gailu elektronikoak eta bagoi guztietako biztanleriaren hotsak eta zaratak. Bagoiak berreskuratu du bere zalaparta marmarlari kolektiboa, negarrak, zurrungak, aldarriak, karaoke desafinatuak, bibolin praktikak, marramiauk, beeak, karrankak, kukurrukuak desorduetan. Ulergaitz. Bereiztezin. Denak batera.

Bakoitza bere betebeharrak itzuli da atzera. Langabeak eta landunduen gutxiengoa pasilloan barrena galdu da, data biltzaileak eta soslai zirujauak eta energia ingeniariak eta azafata sostenibileak, bakoitza bere bizilanera. Estazio efimeroetan eta memoria isiluneetako segunduetan baino deskantsatzen ez duten hiritar automatik. Bizilana deitzen diote, baina lanbizi da.

Pertsona berri bat jesarri zait alboan. Emakume bat, aho-zapia jantzita maskaratzat. Belarriak estali ditu entzugailuekin. Berdin egin dut nik, eta saiatu naiz lehengo abestia berreskuratzen, baina jada ez dago erabilgarri. Txanpon bat gutxiago.

Alarma biztu da pantailatan.

Kaskoak erantzi eta bagoiak berdin segitzen du, bere zarata mosaiko kolektiboan. Inor ez da asaldatu argiagatik. Guztiek jarraitzen dute bakoitzak bere pantailari berbetan. Bidaiariak indiferentzia filtroa dauka argi gorriarekiko eta, otsoa dator otsoa dator otsoa dator, ez du mezu aztoragarri dekodifikatzen argi gorria bizten denean. Alarma argiarekin batera bizten den sirena hotsa ia ezinezkoa da entzutea bagoiko zarata konstante etenik gabe.

Bideozaintza kameran irudietan ageri da alarma piztearen kausa: agure zahar bat exhibizionismo oldarraldiak jota. Pasillo erdian gabardina irekita eta besoak gurutzean zabalik, aurpegia lehertze ardarrika, ez da entzuten zer, bitsa aho ertzetan. Kamiseta bat erakusten ari da, paparra harrotuta, bagoiaren alde batera eta bestera. Kirol selekzio talderen bat? Ez dakit. Baina nazio zaharren batekoa, erakusteko duen grinagatik. Desazkundearen omenezko isilunea probestuko zuen bere aldarrikapenak eta bi oihukatzeko. Hemendik gertu ari da gertatzen ekintza abertzalista, hamazazpigarren bagoian. Bi bagoi honantzago, ordea, inork ez dio jaramonik egiten gertaerari.

Nire alboko emakumea propagandari so dago, belarrikoetan hizkuntza kanalak aldatzen.

Monitoreko zuzeneko irudietan, azafatak esku keinuekin adierazten ari zaizkio agureari nondik jarraitu pasilloan aurrera.

Menpekotasun folkloriko-afektiboak diagnostikatuko dizkiote, seguruena. *“Edozein folklore adierazpen berorren aurka erabilia izan daiteke”*. Negar egin, errezatu edo gora nire herria aldarrikatu. Gorputzak barrutik eskatzen ditu halakoak eta ni ez nago kontra, ulertzen ditut, baina horretarako daude Baltzokiak, gizona. *“Erlijorik ez, banderarik ez, tristeziarik ez”*. Hain zaila ere ez da.

Ziztuan zeharkatu du leihoa estruktura beltz batek. Agertu eta desagertu. Geltoki ohiaren izenik ez. Antzinako geltokiren batekoa, agian. Izenik bazuen, irakurtzeko astirik ez. Eraikuntza Lasterketa Desarmatzeko Nazioarteko Hitzarmenaren aurrekoa, seguruena. Desertu eremuetan goaz orain. *“Zein izango da hurrengo estazioaren logoa? Bozkatu gogokoena!”*. Otsoak. Baleak. Pinguinoak. Desagertutako animaliak hautatu ohi ditu jendeak estazioen logo. Arranoak. Dordokak. Eskutitzak.

Emakumeak jarraitzen du belarrietako gailuan hizkuntza kanalak aldatzen.

Badu zerbait emakume honek. Azal beltzarana eta tatuajeak agerian lepo, sorbalda, besoetan. Tirantedun kamiseta zabal darama, margo pintzeladekin zikindua. Larruzko poltsa ez oso handi bat inperdible, txapla, petatxo josia. Orraztu bako ile beltz kizkurra, begi beltzen inguruan betazalak margo urdin ilunez margotuta, sudur txikia.

Erakargarria da eta badakiela esango nuke.

Maskara zapia erantziko balu ziur naiz irribarre bat agertuko lukeela.

Zerbait dauka. Agian azal beltzaren tonu zingaroa da. Sorbaldatik kamisetaren tiranteak lasai eskegita daramatza eta ez dauka beste inolako predarik batere hor azpian. Lepo-sorbaldetako tatuaje marrazkiek paparrean behera egiten duten bidean azalaren azalera osoa imajina dezaket. Kamiseta zabalaren azpian askatasunerako tartea dagoela iradokitzeak irudimena pizten du. Oxigeno kalada bat hartu eta putz, kamiseta barrura.

Gogoratu paketea erostea hurrengo estazioan.

Edo usaina da agian. Emakumeak berarekin ekarri duen usainak badu zerbait gertukoa, benetakoa. Bagoi behin eta beti estreinatu berriaren usainaren gainetik, airean pausatzeko ahalmena duena, zabal, luze, astiro.

Begiratu egin nau.

Koadernora orain.

Begi ertzen margo urdinak zimur egin die.

Iribarre egin du?

Maskara zapia erantzi du eta bai, irribarrea dauka aurpegian.

Iribarrez ari da nire koadernoari begira.

Ez da posible.

- Eskerrik asko.
- (... ezin liteke ...)
- Polita da nitaz idatzi duzun hori, usainarena-eta. Gustatzen zait.

Irribarre egiten jarraitzen du. Hizketan ari zait. Mutu nago ni.

- Nora naiz. Nora Blu. Eta zu?
- (...)
- Badakizu hizketan? Edo koaderno horretan idazten baino ez...
- In... Inko naiz... Ni... Nire ama-hizkuntza ulertzen duzu?
- Neu ere ama-hizkuntza berekoa naiz, laztana.
- Ez neki... Ba... Barkatu (itxi koaderno, Inko).
- Lasai, gizona, ez duzu ezer txarrik idatzi. Inko orduan?
- Inko, bai. Inko Soare.
- Pozten naiz, Inko.

Nora Blu. Bere izen osoa esan dit. Nire izena ahoskatu du. Gustatzen zait nire izena esateko duen modua, silaba bakoitza garbi, *in* barre batekin, eta *ko* hain borobil.

- Polita da hizkuntza bereko norbait topatzea, ezta? Ez da sarri gertatzen.
- Niri behin ere ez. Sekula ez dut inorekin hitz egin trenean, ezta beste hizkuntza batean ere..
- Ba kaixo. Ondo etorri elkarrizketa honetara.

Elkarrizketa honetara. Tren hau orain arte behin ere iritsi gabea zen lekura. Ahots berezia du. Ahots bat apur bat zartatua eta epela aldi berean. Ahots bat ulertzeko modukoa. Ahots oso bat, benetakoa, hitzez hitz.

- Zergatik idazten duzu, Inko?
- Ba... Gustatzen zait, nire hizkuntzan nahi dudana ipini ahal dudalako; inork ez dituelako... ulertzen. Normalean.
- Eta ama-hizkuntzan bakarrik ala hizkuntza gehiagotan idazten duzu?
- Ba, egia esan, gure hizkuntzan bakarrik, bai. Itzulpengintzan tituluduna izan arren.
- Gure hizkuntza, diozu. Baina hor idatzita daukazun hizkuntza zurea da, zure zeurea baino ez, ez badiozu beste inori erakusten. Irakurtzen uzten badidazu, orduan igual, nirea ere izan daiteke. Baina ordura arte...

Besoak buru atzera eramanda bermatu da besaulkiaren aurka, harro. Irribarre madarikatu hori zoragarria da. Koadernoan zer dagoen irakurri nahiko ez balu bezala. Ezpain arrakalatuak ditu, irribarre egin zalea delako, agian, edo hozkatu egiten dituelako. Koaderno irakurtzen utz diezaiodan nahi du. Neuk erakuts diezaiodan berari. Jostaria da, zantarra. Ba ez diot erakutsiko.

- Zergatik idazten dudan? Ba ez dakit... Pentsamenduak paperean ipintzeak ematen die gorputza, zerbait fisikoa. Errealak dira.
- Eta bestela ez dira errealak?
- Pentsamenduak? Tira, ideiak ez dira materialak, ezta? Irudimena edo oroimena lainoagoak dira, uste dut. Ahaztu eta desagertu egin daitezke.
- Iraunarazi egin nahi dituzu, orduan.
- Tira... Ez dakit. Nonbaiten nire burua ikusteagatik egiten dudala uste dut.
- Baina, koaderno isila da, Inko. Badakizu zer den erreala? Benetan fisikoa?
- Zer?
- Aldarri egitea. Egin dezagun.
- Garraxi? Inork ez gaitu ulertuko-eta, zertarako?

Arnasa hartu du tirantedun kamiseta zabala saihetsekin betetzeraino eta garraxika hasi da. Baina garraxika benetan, ikaratzeko eran. Leiho aldera biratu dut burua nik, ez dut begiratu nahi izan. Lotsatu egin naiz. Baina berak jarraitu egin du, eta eskutik heldu nau, estu. Burua atzerantz eta ahoa gora ari da garraxika, trenaren sabaia zulatu nahian bezala. Ez dio inork kargurik hartu, ez du inork burua beragana biratu. Azafatak ere pasatu dira, irribarre sosteniblean, eta ez diote ezer adierazi. Harriduratik ezin irten nabil. Ulertu egiten diot ahotsa. Inguruko bidaiariek berdin jarraitzen dute bakoitza bere belarrietakoen azpian murgilduta, nor bere monitoreari berbetan. Orain, bagoiko ahotsen bolumena ozenagoa da orain, orohar, Noraren oihuek derrigortu egin ditu denak marmar kolektiboaren gainetik nork bere esatekoak pantailako mikrofonora garbi helarazteko ahalegin extra egitera. Beteta dago Plazapp, eta ozen. Norak jarraitzen du garraxika, zoro, nire eskuari helduta, beste eskuarekin erritmo kolpeak markatuz besaulkiaren kontra, tap-tap-tap, bere hitzei indar eginez are bultzada handiagoa emateko, tap-ta-tap. Eta nik, beste inork ez baina nik bai, argi eta garbi ulertzen dizkiot hitzak. Belarri zuloak inoizkorik garbien sentitzeraino argi. Bihotza atzamar puntekin ukitzeraino garbi. Haragitasun osoz. Behin eta berriro. Behin eta berriz. Hiru hitz, Norarekin batera errepikatuko ditudanak neuk ere:

- En-tzun hau! Me-se-dez! En-tzun hau! Me-se-dez!!

Hurrengo estaziora arte egin dugu elkarrekin aldarri eta algara.

2051 trenean dena da arin. 2051 trenean dena da orain. 2051 trenean dena da denen. Denon iritzia da ezinbesteko eta Dortoka da begi-kliska gehien jaso dituen logoa hurrengo estaziorako. Irudi batek mila hizkuntzak baino azkarrago komunikatzen baitu.

Ondo etorri dortokaren estaziora.

Estazio honetako egonaldia ere bizarra egin gabe igaroko dudala iruditzen zait.

Bagoiak solairu bihurtzerako pasilloetan aurrera egin dugu, ostatu lekuetara zuzenean. Oxigeno pakete bat erosi eta logela bat alokatu dugu Norak eta biok. Horma zuriak, ohe zabal bat, leihaxka txiki bat sabaian. Leihoko interfaze elektronikoa amatatu eta oxigeno zigarro bat biztu dut. Norak eskuetatik kendu dit.

- Norbaiti idazten ariko zara, idazten ari bazara.

Aurpegira egin dit putz.

Ez dit molestatzen oxigenoak aurpegian.

- Ba ez dakit norentzat idazten dudana. Neuretzako?
- Eta, zu desagertu ostean, koaderno hori beste norbaitek hartzen badu? Oh! Demagun itzultzaile batek aurkitzen duela! Demagun koaderno itzuli egiten duela beste hizkuntza batzuetara, beste hitz batzuetara, beste itzultzaile batzuen eskuetara, eta... Baina, oh!! Demagun zibilizazioa hainbeste eraldatu dela ze, koadernoan idatzi dituzun hitz batzuk ordurako desagertuta daude eta...
- Oxigenoa igo zaizu, ezta?
- Ez zenuke zure obraren seme izan nahi datozen belaunaldietan?
- Mmmm...

Kostatu zait galderaren esanahiaz jabetzea.

- Ez dut uste... Ez. Sekula ez dut idatzi zerbait betirako izango dela pentsatuta.
- Ba kontuz ibili, Inko; gauza horiek betirako iraun ahal dute.

Gauza horiek. Koadernoko hitz idatzi hauek. Gauzak. Oxigeno pitilloa pasatu dit eta zerbaiten bila sartu du eskua larruzko poltsan. Gehiago makurtu da hobeto arakatzeko. Tirante batek besoan behera erorikoa egin dio. Tatuajeak jarraitu egiten du azalak aldapa borobila hasten duen lekuraino. Poxpolo kaxa bat atera du larruzko poltsatik. Harrapatu egin nau begira, baina ez du ezer aipatu. Oxigenoari kalada bat eman diot nik, arnasa berreskuratu guran.

- Gustatzen zaizu jolastea?
- Zer. Suarekin?

Irribarre egin du.

Irribarre zoragarri madarikatu hori.

- Zuk begiratu, eta ea gero berdina egiteko gai zaren...

Poxpolo bat atera eta kaxaren kontra igurtzi du. Fsss... eztanda txiki batekin biztu da fosforo buru gorria. Kixkaltzen hasi da poxpoloaren muturra, garrak egurrezko makiltxo zuria apurka jaten duela, txinpartatxoka eta hozkadatxoka. Poxpoloari begira gaude biok. Akabukerara hurbiltzen ari da su txikia, makilatxoaren beste muturrera, geldigaitza den oldarra. Laster iritsiko da Noraren atzamarretara, baina Norak ez du putz egin. Libre duen beste eskuko bi atzamar busti ditu txistutan eta, astiro, dagoeneko beltza den poxpolo buru gorri ohiari heldu dio hatz hezeekin, kontu handiz, makiltxo kixkalia apurtu gabe, gartxoaren beroa ia atzazal gainean duten beste muturreko bi atzamar askatu ahal izateko, poxpoloari bidea libre uzteko geratzen zaion kontsumitu bako azken egur zatiño zuriari azken koxk kixkalgaria egin diezaion. Su txikia poxpolo amildegira iritsi, azken hatsa bota eta amatatu egin da. Goitik behera belztuta geratu da makilatxoa, osorik. Harro altxatu dizkit bekainak Norak.

- Orain zuk!
- Baina, oso poxpolo gutxi geratzen zaizkizu kaxan...

Burua makurtu eta ezezko txiki bat balantzatu duela iruditu zait, alboan duen mozolo honek ezer ulertzen ez duelako dezepzio keinu bat.

- Zenbat orri geratzen zaizkizu koadernoan, Inko?

Oxigeno kalada luze irentsi eta are luzeago egin dio putz.

- Niri ez zaizkit betirako gauzak gustatzen.
- Nora, zuk tatuajeak daukazu.
- Baina ni ez naiz betirako, maitea.

Maitea. Haserretu egin zait baina maitea esan du. Ñabardura horiek ez dira existitu ere egiten hizkuntza kanaletako konputadore bikoizketetan. Grabadora bat nahiko nuke, ahots hori erregistratzeko, konputadoreko hizkuntza kanal guztietarako balio duen hots bizigabe horren tokian ipintzeko, behin eta berriz, behin eta berriro, behin eta betiko. Zigortzaile, laztangarri, ulerterraz. Benetako. Egiazko. Fisiko. Oxigenoa eskaintzen didan hizkuntzan.

- Azken zutada bat?
- Ados...

Ezpaineekin tira eginez azken oxigeno hondarra berak xurgatu du, ordea, niri pasa aurretik.

- Osorik amaitu duzu baina...

Ezetz adierazi dit buruarekin. Ahoa erdi zabaldu du, geratzen den oxigeno lainoa erakusteko, ezpainen artean geldo, ez aurrera ez atzera, ez irentsi ez putz:

- Erdu bila.

arnasa lapurtu dizut
hats kea eta bustia
erauzi didazu berbaldia

hozkatu ditugu ezpainak
elkarren hitzak jateko
taupada zaporedunak

materia fonikoa
ahotsaren haragi
eztarrien soinu

koba doinu gara
zilborraren altzoan
durundi teluriar

doinuak sustrai
ama hizkuntza estazio
grabitate indar biluzi

sabelean kausk
irrintzi bat entzun da
mendi magalean

azal ertza
okel mintza
odol gintza

sintaxia gara
gramatika kide
gu geure geu

momentu bat tak
eternitatea mundutik at
inprobisatu dugu

mendea eta segundua
gurutzatzen diren hemen
betirako gaitezen

Logelan zure usaina nabari zitekeen oraindik. Esnatu nintzenean, poxpolo kaxa ikusi nuen lurrean, botata. Zabalik zegoen, ia hutsik, hiru poxpolo geratzen zitzaizkion barruan. Komunera joango zinen agian. Hori pentsatu nuen, itzuliko zinela. Irribarre hori erakustera, zure usaina biltzera, poxpolo kaxaren bila, besterik ez bazen ere.

Baina ez zinen agertu.

Estazioa atzera ere tren bilakatu aurretik irten nintzen logelatik, aurpegia garbitzeko astirik gabe. Nirekin hartu nuen kaxa eta koadernoarekin batera gorde nuen poltsikoan. Ez zenidan beste ezer utzi. Hurrengo estaziora arterik ez. Hitz erdirik ez. Oharrik ere ez. Gauza horiek betirako iraun ahal zuten. Akordua baino ez, zure izenaren, usainaren eta ahotsaren akordua. Eta elkarren besoetan lo hartu aurretik izerditan elkarri egin genizkion galderena:

- Zer darabilzu buruan?
- Pentsatu al duzu inoiz, estazioren batean, hartu eta trenetik jaistea?
- Inko...

Nire izena ahoskatzeko modu hori, *in* irribarre batekin eta *ko* hain borobil.

- ...baina badakizu zenbat estazio dauden ezagutzeko oraindik? Kontinentea zabalegia da, Inko, eta bizitza laburregia.
- Eta ezagutu nahi dudan lekua ez bada estazio bat?
- Zer, orduan?

Hizkuntza bat. Elkar ulertzeko eremu bat. Harreman bat, agian. Zure ahotsaren epelean. Irribarre egin zenidan lehendabiziko aldian zure ahotsa entzun eta soinu hura ulertzeak eragin zidan zirrara harekin. Oroimen hutsa orain, irudimenean. Lainoak legez desegin ahal zena. Ezpain arrakalatuetatik oxigenoa ebatsi nizun instantea bezala. Irudimenean tatuatu nahiko nituzkeen akorduak, izan nintekeen bezain betirako.

- Bost hizkuntza erabiltzeko gai naiz, gurea eta beste lau. Zu?
- Denak daude gure esku, ezta? Belarrietako gailuan kanalak aukeratu besterik ez duzu.
- Mesedez! Horri ezin zaio hizkuntza deitu, konputadore ahots automatiko hori ez da erreal, ez dauka entonaziorik edo inolako matizerik... Gure hizkuntza kanala hautatzean, hasteko, sarri interferentziekin egoten da, baina, aparte, ez da benetakoa. Ez du zaporerik. Ni ez naiz hizkuntza horretakoa.

Hizkuntza al zen batzen gintuena, ados ez geundenean.

- Ama hizkuntzan bakarrik idazten duzu?
- Bai. Horrela ateratzen zait.
- Sabeletik bezala? Amarenari lotutako sabel berberetik...
- Baliteke. Behin irakurri nuen entzuten dugun lehendabiziko gauza itsaso hori dela, amaren umetokiko likido amiotikoa.
- Nola esaten da *gabon* dakizkizun beste hizkuntzetan?

Lahko noč, добра ноќ, Gou nâcht, Oíche mhaith agus codladh sámh. Aspaldi ez nituela ahoskatzen, pantaila baten mikroari ez bazen, hezur-haragizko norbaiten aurrean.

Gabon. Gero isiltasuna entzun genuen tarte batez, ohean etzanda. *Maite zaitut*, esan zenidan bat-batean. Maite ninduzula. Buruan momentu hartan zeneukan esanahia, ordea, *Agur* bat izango zen, baina beste hitz batzuk ahoskatu zenituen. *Maite zaitut. Laztana. Ondo lo egin.* Horrelakoak. Biharamunean beste hitzik utzi gabe alde egingo zuela bazekienaren azken hitzak. *Agur* esatearen sinonimo. *Agur, Inko.*

2051 trenak bere martxa berrartu aurretik, estazioa desmuntatu eta moduluak bagoi bihur zitezten itxaron behar nuen. Luze egin zitzaidan. Logela hartan utzi nuen mundu oso bat, hizkuntza-tenplu bat. Antzinako erlijiodun tradizioetan etxea deitzen zioten horren antzeko zeozer. Geratzea merezi zuen estazio bat. Tren bat gorputza zeharkatzen. Azal ertza. Okel mintza. Odol gintza.

Komunetara sartu nintzen aurpegia garbitzera eta hiri oso bat entzun nuen han barruan, zulo higuigarri hartan. Haize orkestra likido bat, ordura arte inoiz arretarik eskaini ez niona, bezperako zure ahotsaren akorduarekin kontrastean. Nazkagarri. Pfff prrrt plok eta blaust. Hesteetatik irteten zirenak, ahots korden korapilorik gabeko eztarritik. Hiztun guztiak estolderiaren kanal berean komunikatuta, berdin zion jatorria, bost axola entzulea. Sabeletik. Belarriak estali nituen.

- Gustatzen zait zure bizar utzia, zure begi txikiak, zure ile kizkurrio hori.

Ahots hori entzun nahi nuen berriro.

Hizkuntza hartakoa nintzen. Hizkuntza hartan geratu nahi nuen.

Bilatu egin zintudan, Nora.

Karabanak luzetara berrantolatu zirenean, eserleku bat aukeratu beharrean, oinez hasi nintzen, trena barrutik zeharkatzen. Moduluz modulu. Bagoirik bagoi. Bi mila eta berrogeita hamaika konboi. Nora, errepikatzen nuen neuretzako, eserlekuetan monitoreei begira bidaiatzen zuten aurpegiei begira, begirada monitoretik altxa eta begietara zuzenduko zidan irribarreraren bat, irribarre madarikatu hori, *pozten naiz* adieraziko zidana. *Hiztunkide nauzu* esatearen pareko. *Kaixo* baten sinonimo. Ondo etorri elkarrizketa honetara.

Bagoietako korridoreetan aurrera, zu ikusi izana sentitzen nuen tarteka, Nora Blu, urrunean, eserlekuen gainetik zure ile beltzaran desordenatua topatu izanaren irudipena izaten nuen, zure begi beltz betazal urdin azal ijitoa, tirantedun kamiseta eta lepo sorbaldetako tatuajeak ezkutatuko zituena besaulkiaren atzean. Baina gerturatu eta zu ez beste edonor zen beti. Tatuajerik ez. Betazal urdinik ez. Irribarrerik ez.

Inork ez zuen altxatzen begirik monitoretatik. Aurpegi guztiak aurreko besaulkiaren pantailako argi isladei iltzatuta zeuden, monitoreei berbetan. Denak batera. Bereiztezin. Ulergaitz. Doministikua jartzailea diskoa alergía jokoia yogurta bizia potoa hutsa tiklinkia subgrabea zurrunga taklanka lotia ez-ederra frustratua zalea karaokea saltzailea zeta desafinatua negarra oihala kazetaria umea etorkizuna hemeroteca denbora artekaria zirujaua artega soslaia katua oilarra ardia alta beherapena desordua artzaina kukurrukua ipurbeltza galdua beea belea berea burua...

Nork bere matraka isurtzen zuen begien aurreko interfazeen argi distiretara, etengabe. Inor ez zuen uzten beste norbait entzuteko tarterik. Mar mar mar. Zazpi mila hizkuntza kanal belarrietako gailuetan, alboan eserita zioanarekiko gor. 2051 trenean dena zen zarata. 2051 trenean dena zen birtuala. 2051 trenean, eleaniztasun gaindosiak jotako biztanleria analfabetoa garraiatzen zen.

Estropozuka nindoan. Zapatak zeuden lurrean. Galtzerdiak zintzilik. Maletak hutsik. Baltzokietan gero eta ilara luzeagoak ikusten ziren bagoirik bagoi. Menpekotasun folkloriko-afektiboak jota egotea ez zitzaidan hain zentzugabea iruditzen goiz hartan. Laster neure burua ere hor ikusten nuen, ilaran zain. Porno abertzale gosez. Ekitaldi orgiastikoren bat agian. Poesia orala bafleetatik, milaka lagun harmailetan, denak adi. Doinuei, errimej, mezuei. Hizkuntza berean, elkarrekin. Txalo zaparrada eta ospakizun kolektiboa. Aldarrikapenak, emozioak, negarrak...

Bizikidetzeta eta aniztasunarekiko errespetuaren onbeharrez folklore adierazpen oro isunpean zigortzen zuen tren-gizarteak eragiten zuen artegatasunari ezin eutsiz bizi ziren porno-abertzale gosez Baltzokietako ilaretan, burumakur.

Ehundaka bagoi zeharkatu nituen begietara inork begiratu gabe. Bidean gurutzatzen nituen azafatek ere ez, leihoak seinalaten zituzten, irribarre sosteniblean, 2051 treneko araudi berriaren bertsio eguneratua deskargatzeko gonbidapenean. Inork ez zuen begiratzen leihora. Are gutxiagok leihotik. Hemen inork ez zuen hitz egiten gure hizkuntza. Hemen inork ez zion hitz egiten monitore bati ez bazen. Hemen inork ez zuen hitzik egiten. Non zeunden, zein bagoitan, ahots epeleko Nora.

Nire hizkuntzako neskatxa maite.

Bizitza laburregia zela eta kontinentea zabalegia, estazioen batean trenetik jaisteko. Trena estazio bihurtzen zen eta estazioa tren, eta inork ez zuen hortik kanpo oinik ipintzen. Monitoreak ziren begi, eta inork ez zion elkarri begiratzen. Kaskoak ziren belarri, eta inork ez zion aldamenekoari entzuten. Dena zen arin, dena zen orain, dena zen hemen, eta ezer ez zen inon, ezer ez zen inoiz, ezer ez zen inor. Kontinentearen zabaltasun birtuala zen bizitza laburregitzen zuena. Oxigeno zigarro bat erretzeko astirik apenas uzten ez zuten estazio efimeroz efimero ero mugitzen zen zibilizazio inkomunikatu bat.

Leher eginda nengoen. Gose nintzen eta hankek ezin zuten gehiago, bagoirik bagoi zure bila eman nituen kilometroen ostean. Eseri egin nintzen, 2051 treneko mila zazpi ehun eta hogeita hamalau bagoiko bigarren moduluan, B1 besaulkian, pasillo barruko aldean. Musker aurpegia zuen gizon argal baten aldamenean. Deskantsu apur bat behar nuen.

Nire aurpegiaren islada ikusi nuen aurreko monitore itzalian.

- Gustatzen zait zure bizar utzia, zure begi txikiak, zure ile kizkurrio hori. Fantasia errealetarako gordeko ditut memorian.

Banekien harremanaren efimeroaz ohartarazten ninduzula zeharka. Tatuajeak zenituen baina ez zinen betirako. Bagenekien. Ez nizun inolko promesarik eskatu, edo egin. Iragan estazio guztietan sexu enkontruen efimerotasunaz sobera ohituta nenbilen ordurako. Baina, aurreko estazio haietan ez bezala, oraingoan zuk hitz egin zenidan, izen bat eman, zure ahotsaren presentzia, elkar ulertzearen usaina, ama-hizkuntzaren haragia.

Ausentzia bat izkribatu zenidan gogoan, eta, zuk ohartarazi zenidan bezala, gauza horiek betirako irauteko arriskua zuten.

Biztu nuen monitoreara. Appa-Hi. Appatx. Pantailaren bestaldean topatu ahalko zintudan, akaso? Nora Blu. Emaizarik ez. Beteta zegoen Plazapp, baina zu ez zinen inondik ere ageri. Soslai birtualik ez zuri buruzkorik. Gezurrezko izen bat eman zenidan? Zirujaren bati eskatuko zenion perfil birtuala aldatzeko? Animalia arraro bat zinen (estazioetako logoen antzekoa, desagertutako animalia bat) aplikazio birtualik erabiltzen ez zuen horietakoa? Soilik nire irudimenean agertutako haize laino bat besterik ez agian, dibagazioz asmatua, desagertu egingo zena zure akordua ahaztearekin batera?

Nora Blu. Soinu mezu bat eskegi nuen, eta itxaroten geratu nintzen, erantzungo zenuen esperantzaz. En-tzun-hau, me-se-dez.

Poxpolo kaxa hartu nuen eskutan. Geratzen ziren hiru poxpoloetatik bat biztu nuen, eta, alboko musker-aurpegidunak ez zion erreparatu ezta fosforo usainari ere, mundurik ez zen existitzen ez harentzat bere interfazearen markotik kanpo, ahalegindu nintzen poxpoloa hasieratik amaierara kixkaltzen, zuk erakutsi zenidan bezala, atzamar bustiekin fosforo buru belztua kontu handiz eutsiz, makiltxoak apurtu barik, maniobra ondo eginez gero eta osorik erretzea lortzen banuen zure erantzunen bat agertuko zen esperantzaz, inbokazioz-edo.

Sinetsi nahi nuen posible zela, nik zu ez bazen zuk ni topatuko ninduzula. Interfazean. Leihotik begira. Hizkuntzen kanaletan. Nonbait.

Lagundu aukeratzen hurrengo estazioaren logoa. Ados bazaude, kliskatu begiak behin. Bestela, ez kliskatu begiak behin ere, eta irentsi monitoreko argiak erretinak erre arte. Logo batek zazpi mila hizkuntzak baino azkarrago komunikatzen baitzuen. Gogoratu zure hizkuntza kanal gogokoena esleitzea. Ahaztu, ondoan jesarrita duzunarekin elkarrizketan aritu ahalko zinenik. En-tzun-hau, me-se-dez.

Su garrak jarraitzen zuen bere bidea.
Loturak. Estekak. Labirinto digitalak.

2051 treneko logoen semiotika ez zen inork uler zezan, albokoaren hizkuntzaren existentzia ahantz genezan baizik. Fauna osoaren marmarraren abarrots ulergaitzaren azpitik, norbanako bakoitzaren kaskopeko burbuilaren gainetik. Analfabetoak denok. Bizikidetzaren birtualaren alde.

Zein hizkuntzatan egingo zuen berba alboan nuen musker aurpegidunak?

Poxpoloa osorik kixkaltzea lortu nuen. Ez zen ezer berririk gertatu. Zure erantzunen bat jasotzeko esperantza ere ketan ebanoratu zitzaidan. Beteta zegoen Plazapp, eta inork zabaldu gabe geratzen ziren milaka soinu mezu behin eta berriro eta behin eta gehiagoren azpian lurperatuta geratu zen baita nire deiadarra ere. Nora Blu, entzungo ote zenuen, ba ote zen erantzunik, nire deiadarraren antzera milaka soinu mezuen artean galdua izango zenik. Galtzea zen bide bakarra. Trenak bere bidaia jarraitzen zuen. 1.200 kilometro zaratatsu, gor eta analfabeto orduko, behin eta berdin, behin eta betiko, infinituraino jasanezin.

Zuri ari nintzen idazten.

Zu ez bazintudan aurkitzen sikiera koaderno honekin zuk zeuk topo egingo zenuelako aukera gogoan. Orrialdearen bestaldean egon ahalko zinela pentsatu nahi nuen, hitz hauek irakurriko zenituelako fedeari eutsi nahi nion, ohar hauen hizkuntza ulertuko, entzungo eta sentituko zenituela jakin. Benetan ari nintzela sentitzeko. Behar zintudan, Nora. Zuri idazteko, zuri hitz egiteko. Amaitzen ari zen koadernoaren orrialde bakoitzean izkiriartzen jarraituta zugandik pausu bat urrunago aldentzen ari nintzela sentitu arren.

Zertarako balio zuen ba utopiak bestela.

Eta etorkizun urrunago batean beste norbaiten eskuetara iritsiko balitz koadernoak? Ni ere ez nintzen betirako, baina gauza hauek bai, gauza hauek betirako iraun ahal zuten... Baina, orduan, nor izango zinen *Zu*? Nora Blu barik beste norbait bazinen hitz hauek irakurtzen ari zena, nori ari nintzen idazten?

Oharra, zuri: barkatu koadernoko akatsak eta zirrimarrak.

Barkatu Noraren aurpegia ipini banizun, itxaropenezko irakurle hipotetiko hori, Noraren azal beltzaranarekin eta kamiseta eskegian behera bidea egiten zuten tatuajeekin irudikatzen zintudan, ile kizkur aztoratu haren usain eta guzti, begi beltzekin eta betazal urdinez margotuekin.

Nongo hizkuntzakoak izango zinen? Norak esan zidan behin: demagun. Demagun itzultzaile batek aurkitzen zuela koadernoak, eta demagun ordurako zibilizazioa aldatua zela, hainbeste ze erabiltzen ari nintzen hitz batzuk ordurako desagertuak izango ziren.

Oharra, itzultzaileari: barkatu hitz desagertuen esanahien ausentziak.
Hitz horien lekuan zeureak asmatzeko libre sentitu libre. Idatzi sabeletik.

Jakin zuretzat (ere) ari nintzela orrialdeotan, tren madarikatu honetako fauna jasangaitzatz esateko nituenak autozentsurarik gabe askatzeko estolderian gora oka. Zu bat behar nuen, zela Nora, zela itzultzaile, zela irakurle. Hizkuntzan jarduteko. Baina, egia bakarra, zen neure buruarekin bakarrik ari nintzela.

Hiri oso bat zioan trenean.

Plazapp beteta.
Zurik ez.

Garraxi egin nuen. En-tzun-hau, me-se-dez! Behin. En-tzun-hau, me-se-dez! Birritan. Konbikzioz baino gehiago, desesperazioz. En-tzun-hau, me-se-dez! Hirutan. Inork ez zidan begiratzeko. Laugarrenerako ez nuen esaldia osorik amaitu. En. Tzun. Alboko muskerdun aurpegiak begiratu egin zidan? Ez zen posible, ezin zitekeen...

Eta albokoari berba egitera ausartuko banintz, zuk nirekin egin zenuen bezala? Eskerrik asko, esan zenidan, koadernoan zuri buruzkoak irakurri zenizkidanean. Zuri eman behar nizkizun nik eskerrak, hitz egitera ausartzen erakustearren. Zer esango zidan muskerdunak? Zer esango nion nik?

Bazekien gure hizkuntza albokoak? Baliteke garraxiak utzi eta geroko zarataren faltagatik begiratu izana, ez besterik. Baina, agian nire hizkuntza ulertu ulertzen zuen, eta soilik ezjakinarena egiten ari zen ez zuelako nirekin hitz egiterik nahi. Zu ezagutu aurretik nik ere nahiago izaten nuen kaskoak jantzita musika entzun, barbarik gabea, instrumentala, bagoiko marmarretatik aparte, eta gainera, bidaiari bati kaskoak erantzeko eskatzea edukazio txarrekoa bezain estrañioa zen. Elkarri aurrez aurre sekula ez hitz egiteko bezain tristeak bihurtu al ginen? Berdin zion. Ausartu egingo nintzen.

Ama-hizkuntzan edo beste edozeinetan. Zuk egin zenidan bezala, irribarre batekin. Banituen hizkuntza gehiago ere, badaezpada: batzuk formaki erabiltzeraino ikasiak itzulpengintza tutorialetan, beste batzuk erdi ulertzera iritsitakoak hizkuntza kanaletan zpping eginda. Hain inposiblea ere ezin zuen izan albokoarekin komunikatzea. Zazpi mila ehun eta hamaika aukeratatik hamaika nituen eskura.

Begiratu egingo nion eta hitz egiten hasi, hizkuntzak ulertuko ez bazituen ere, keinuren bat, agian bi, elkar ulertzeko berba moduren batean topo egin genezakeen punturen batera iritsi arte. Estazio linguistiko bat topatu arte. Kaixo. Ni Inko. Horrela hasiko nintzen. Esku bat paparrean ipini eta esan: Inko. In-ko. Eskuarekin tap eta tap bularrean eta beste eskua berari hurreratu eta bekainak goratuta: zu? Ni In-ko. Zu? Izena lehenengo. Nor ginen. Eta hizkuntza posibleak gero. Ea nekizkien hizkuntzetarik baten bat erabiltzen zekien edo sikiera ulertzeko gai ote zen. Izena eta hizkuntza. Ez, ez, itxaron: lehenengo irribarre egitea izango zen onena. Eskua bere sorbaldan pausatu, atsegin, bere arreta erakartzeko baina ikaratu edo asalatu gabe. Eta gero irribarre egin. Azafatek bezala, irribarre sosteniblea. Bai. Eta gero izenarena eta gero hizkuntzarena. Irribarre bat, izena eta hizkuntza.

Zer gal genezakeen saiatzarren?

Alarma biztu zen.

2051 trenean dena zen hemen.

2051 trenean dena zen orain.

2051 trenean dena zen arin.

Beteta zegoen Plazapp. Atxiloketaren irudiak azkar zabaldu ziren interfaze guztietara. Azafaten operazio garbi, adeitsu eta profesionala eredugarria izan baitzen laugarren arau konstituziogile berria aurkezteko. Erlijiorik ez, banderarik ez, negarrik ez eta, berriena, ukitzerik ere ez. Arau eguneratuen artean hautsiz gero bizikidetza legeak agintzen zuen jarraibidea nola betearazi erakusten zuen adibide didaktiko-dibulгатibo egokia eskaini ahal izateko material grafiko aparta gertatu zen bideo kamaren aurreko atxiloketa ekitaldi hura. 2051 treneko kultura, hizkuntza eta arraza guztientzat ulergarri. Hitzik erabili behar izan gabe.

Bidaiari bat beste bat ukitzen ageri zen, behin eta berriro, sorbaldan, monitoreetako irudietan aratz ikusteko eran. Sorbaldan ukitua izaten ari zen biktimak pantailako abisu-ikonoa sakatu zuen eta erasotzaile-ukitzailearengandik urrundu, gorputza atzeraka aldentuz, leihoaren kontra bermatu arte. Jarrera horretan mantendu zen biktima, egoeraren larritasunari zegokion eran, alarma argi gorria biztu eta azafatak etorri bitartean beste ezer egin gabe, kontra-ukitze arriskuak saihestuz, ezta auto-defentsarako ere, hori laugarren arau konstituziogile berria ber-apurtzea bezain arriskutsua baitzitekeen.

Irudietan tentsioa handia zen oso. Sorbalda-ukitzaileak jarraitu egiten zuen bere egineahalean eta biktimaren bisaian agerikoak ziren higuin eta ikara sentipenak, ia-ia tristezia adierazpen izateraino, hirugarren araua haustea lekarkeena horrek ere, eta beraz ataka larrian zegoen biktima, baina leihoaren kontra irmo eutsi eta ez zuen negar alerik erakutsi. Ondo ari zen. Laster etorriko ziren azafatak eta izango zuten egoera kontrolpean. Hamar agertu ziren guztira, arau-hausteei aurre egiteko bizikidetza protokolo berria ezarri zenetik praktikan ipini behar zen eran: bost eta bost azafata, pasilloaren albo banatatik, adeitsu eskainiz erasotzaile-ukitzaileari gas-baretzaile maskara arnas zezan, hamar farmazialari birtualetatik bederatzik gomendatutako produktua, tentsioak erlaxatu eta egoera asaldatzailea bere onera ekartzeko. Erasotzailea behin ere ukitu gabe, azafatek bagoiko pasillotik aurrera gonbidatu zuten, irribarre sosteniblean. 2051 trenaren hondakinen birziklapenerako modulu batean giltzapetu zuten. Atxiloketa garbia eta gogoangarria, ukitzerik, negarrik, erlijiorik eta banderarik gabea.

Dena ondo grabatua geratu zen. Beteta zegoen Plazapp egun hartan. Probestua izan zen publikoki erakusteko. Behin eta berriro eman zituzten irudiok bidaian zehar. Behin ere gehiago gerta ez zedin halako arau-hausterik sekula.

2051 trenean beti zen bake. Jarraituko zuen hiri guztiak bere baitan eramaten. Desmuntatuko zituen berri guztiak eta noizbait etorkizun ere izan ziren zaharrak. 2051 trenean beti zen anitz. Eurasia kontinente osoko jatorriak, kulturak, hizkuntzak, sexuak eta adinak, bidaia berbera konpartitzen. 2051 trenean beti zen epel. Kanpoan tenperatura eta klima aldaketak gertatzen zirenean, barruan azken aurreko poxpolo batek kontu handiz egindako maniobra batekin bere burua osorik kixkali zezakeen azken aurreko itxaropen gartxoak legez.

2051 trenak utopia beste berriro batez iragan aurretik, bagoietako batek su hartu zuen.

Kanpoko azala erantzi zuen trenak, suge baten antzera. Hondakin beltzak atzean utzi zituen, biodegradagarriak. Trenak ihes egin zuen, urrun, marra bat trazatuz eta trazaren atzetik marra desagertuz. Gizon itxurako norbait zetzan lurrean, trenak hondakinak utzitako tokian, gorputz adarrak luzetara zabal.

Beste tren bat igaro zen gorputz harengandik oso hurbil, eta gero beste bat. Ziztuan. Tren berriak zetozen, haize lainoak legez, ber eta des agertzen. Ekialdetik eta ekialdera. Mendebaldetik eta mendez mendera. Iparraldetik eta edonora. Hegoaldetik eta hegonora. Bagoi gehiago edo gutxiago zituzten hiri-estazioak martxan, infinituraino jasangarri.

Distantziak eta mugak ezabatuak ziren. Obaba. Etiopia. Susa. Ahozko tradiziorik gabe desagertuko ziren izenak. Xian. Samarkanda. Karakorum. Kontinente geografiko osoa. Khunjerab. Mesopotamia. Finisterre. Mugimenduaren mendean.

Haize hodeiak zebiltzan ostarteekin des eta ber agertzen. Ipar boladek putz eginda buztan kiribilak ari ziren marrazten behe lainoetan. Zilargi okerra zuri ostertzetik urrun, margo ilun grisak kontrasterik gabe. Desagertzen doaz izarren koloreak zeru oihalean txiki. Isladarik ez itsaso fotovoltaikoaren azal metalikoan.

Zilargiak distira amatatua pausatzen zuen hotz zeru beltzean. Mendi tontorrak zuritzen ari ziren, berriro. Urtaroak gero eta azkarrago eraldatzen ziren planeta baratzean.

Tanta beltz bat hanka biren gainean zutik, gizon itxurako mamiferoa puntu iñurri nimiñoa zen geologia akzidente orografikoen inmensidadearen ertzean. Urrunera begira gelditu zen luzaz, harik eta, halako batean, pausu bat eman. Eta gero beste bat.

Eta beste bat.

Zeru ertzerantz.